

6.a	1. EZAGUTZA FITXA	OBJEKU TEKNIKO BATEN FUNTZIONAMENDUAREN AZTERKETA <i>Jakin behar dudana</i>	
------------	----------------------------------	---	---

EZAGUTZAK :	MAILA :	GAITASUNAK :
Objektu teknikoak	1 (« badakit »)	- Objektua eta objektu teknikoak desberdinu justifikatuz.
Beharra	1 (« badakit »)	- Beharra eta objektu teknikoak uztartu.
Funtzioak	1 (« badakit »)	- Objektu tekniko baten erabilera funtzioa zehaztu. - Erabilera funtzioa eta estimu funtzioa desberdinu. - Objektu tekniko batentzat, estimu funtzioei doazkien irizpideak zehaztu.
Balorea	1 (« badakit »)	- Objektu tekniko baten balorearen osagaiak identifikatu : prezio, fidagarritasun, erabilgarritasun, epe.

Oinarri bateratua

3	Hainbat eremu zientifikotan ezagutzak eta gaitasunak erabiltzen jakin	Objektu teknikoak : ikertzea, diseinatzea.
----------	---	--

1- OBJEKU TEKNIKOAK

Gure ingurumenean mota ezberdinetako objektuak aurkituko ditugu. Horietarik batzuk gizakiak egin edo aldatu ditu bere beharrei erantzuteko. Orduan, **objektu tekniko** bilakatzen dira.

Objektu teknikoak behar bati erantzuteko egina den gauza da, gizakiak gauzatua materialak eraldatuz.


Objektu batzuk : zuhaitza, harria, ura...

Objektu tekniko batzuk, gizakiak eginak :

- landutako harria edo suharrizko tresnak
- zurezko taula
- idazluma, bizikleta, rollerak...



objektua



objektu teknikoa

2- FUNTZIOAK

a- Objektu teknikoen bidez, **ekintza frango egin daiteke** : moztu, aitzinatu, altxatu, garbitu, neurtu, informatu, mugitu, lotu... Egiten den ekintza honi **erabilera funtzio** deituko zaio.

Erabilera funtzioak behar bati erantzuten dio. Berdina izanen da edozein erabiltzailerekin, gustuak, xedeak desberdinak baldin badira ere.

Erabilera funtzioa **aditz** baten bidez adierazten da eta funtzio hori zehaztuko da galdera honi erantzunez : **"zertarako egina da objektua ?"**

Adibidez :

- *bizikletaren erabilera funtzioa : norbait toki batetik bestera garraiatu bidean ibiliz.*
- *ikaslearen zorroaren erabilera funtzioa : eskolako puskek bildu.*

b- Kontsumitzaileak objektu bat erosiko du behar bat betetzeko : **erabilera funtzioa** da. Baina objektuak duen **xarmak** kontsumitzailea eragin dezake : **estimufuntzioa** da.

Erosi duzun zakua ez da zure lagunak erosi duena, ezberdina da, gauza bera oinetakoak konparatzen baditugu.

Adibidez :

Maritxurentzat, auto ederrak berez gorriak dira.



Amarentzat, auto ederra berez auto zabala da..



Peiorentzat, auto ederra berez lasterketa-autoa da.



Estimufuntzioa erabiltzailearen gustuei eta lehentasunei lotua da. Gisa honetan zehatz daiteke : « **zergatik produktu hau gustukoa ote dut ?** ».

3- BALOREA

Objektu bat erostean hainbat elementu kontuan hartzen dira eta guregan eragina dute. Honi **balore** deitzen diogu : estetika (edo "design" delakoa), moda, performantziak, prezioa, fidagarritasuna, eskuragarritasuna (eskura emateko epea), ...